



Arartekoaren ebazpena, martxoaren 20koa. Horren bidez, Mallabiko Udalari gomendatzen zaio Mallabiko (...) industrigunean dagoen txatar-parkeko jardueraren sustatzaileari ingurumen arloko legedia betearazteko.

Aurrekariak

1. (...) auzoko biztanle batek Arartekoarengana jo zuen 2011ko maiatzean kexa bat helarazteko asmoz; jakinarazi zigunaren arabera, administrazioak ez omen du inolako jarduerarik egin Mallabiko (...) industrigunean hondakinak baloratzeko jardura duen 4.1 partzelaren ondoan biltzen den txatarrak eragiten dituen eragozpenen aurrean.

Olio-iragazkiak baloratzeko jarduerak eta ibilgailuak beren bizitza baliagarriaren amaieran tratatzeko zentroak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak emandako ebazpen bidez lortutako ingurumen-baimen bateratua (IBB) dute.

Hala ere, erreklamatzailak helarazi zigun arazoa zera da, instalazio horien ondoan dagoen partzela txatar-biltegi gisa erabiltzen dela. IBBk ez hondakinak baloratzeko jarduerak ez dute txatar-parke jardura barne hartzen. Mallabiko herritarrak aipatu digunez, jardura horrek eragozpen nabarmenak eragiten dizkie industrigunearen inguruan bizi diren pertsoneri, zarata eragiten baitu eta hautsa uzten baitu airean.

Erreklamazioaren arabera, salaketa jarri ondoren Mallabiko Udalak ekainaren 11ko 146/2010 Dekretua eman zuen, eta horren bidez partzela biltegi moduan erabiltzeari uzteko eta bertan pilatutako txatar-materialak kentzeko agindu zion sustatzaileari, ez baitzuen beharrezko ingurumen-baimenik. Ondoren Udalak azaroaren 9ko 256/2010 Dekretua ere eman zuen, txatar-bilketa jardura klandestinitzat jotzeko.

Erreklamatzailak dioenez, administrazio-baimenik eduki ez arren, txatar-jarduerak egunero funtzionatzen jarraitu du. Horrenbestez, Arartekoaren laguntza eskatu nahi izan dute Udalari ingurumen arloko legedia betearazteko.

2. Erreklamazioa izapidetzea onartu ondoren, ingurumen arloko legedia betetzen dela bermatzeko eta txatar-biltegi jardura ixteko dekretua bete dela egiaztatzeko udalak hartu dituen neurriei buruzko informazioa eskatu genion Mallabiko Udalari.

Gure eskariari erantzunez, 2011ko uztailaren 29ko txostena igorri zigun Mallabiko Udalak, eta bertan txatar-parke jardura legeztatzeko abian jarri zituen jardueren berri eman zigun.

Alde batetik, (XXX, SL) enpresak IBB du olio-iragazkien balorazioa eta erabiltzen ez diren ibilgailuak tratatzeko zentroa oinarri dituen jardura





nagusian jarduteko. Lehenengo jarduerarako eta irekitzeko lizentzia emateko egindako izapideetan, udalak egiaztatu zuen pabilioiaren ondoko patioan txatarra biltegitratzen ari zirela eta ez zutela horretarako udal-lizentziarik.

Gainera, udalak industrigunearen inguruan bizi diren hainbat pertsonen salaketak ere jaso zituen, eta horietan planteatzen zen kutsadura atmosferikoa, akustikoa eta bibrakorra zein lurzoruaren kutsadura sor ditzakeela ondoko partzelako jarduera industrialak.

Ikuskatzeko bisita bat egin ondoren, Mallabiko Udalak ekainaren 11ko 146/2010 Dekretua eman zuen, jarduera osagarriaren sustatzaileari (YYY, SL) beharrezko ingurumen-baimenik ez duenez partzela biltegi moduan erabiltzeari uzteko agintzeko eta bertan pilatutako txatar-materialak kentzeko agintzeko. Ondoren Udalak azaroaren 9ko 256/2010 Dekretua ere eman zuen, txatar-bilketa jarduera klandestinoztat jotzeko.

Jardueraren sustatzaile den YYY SL enpresak adierazi zuen XXX SL enpresaren jatorrizko jarduera-proiektuak jarduera hori jasotzen zuela, ibilgailuak deskontaminatzeko eta birziklitzeko jarduera nagusiak txatarra manipulatzeko eta sailkatzeko jardura barne hartzen baitu. Hala ere, 2010eko azaroaren 10ean YYY SL enpresak jarduerari dagokion lizentzia eskatu zuen, eta horretarako 4.1 partzelaren txatar-parke jarduerarako proiektua aurkeztu zuen. Eskabide hori izapidetzeko onartu zen, eta 2011ko ekainaren 15ean Mallabiko Udalak txatar-parke jarduerarako lizentzia ematea erabaki zuen Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeko baldintzarekin. Ekainaren 22an YYY SL enpresak neurri zuzentzaileak betetzen direla bermatzeko ziurtagiria aurkeztu zuen eta irekiera-lizentzia eskatu zuen.

Igorritako txostenean azaldutakoaren arabera, irekiera-lizentzia eman aurretik Mallabiko Udalak arau zuzentzaileetan jasotako hauts-igorpenen eta zarata-mailen mugak betetzen zirela justifikatzeko eskatu zion jardueraren sustatzaileari. Udalak jakinarazi zigun, baita ere, egin beharreko jarduerak oso konplexuak zirenez aholkularitza teknikoa eskatu ziola Eusko Jaurlaritzari.

Igorritako dokumentazioan, Mallabiko Udalak jakinarazi digu YYY SL eta XXX SL enpresen kontrako zigor-espeditzea ireki dela behin eta berriro urratu dutelako udalak txatar-parke erabilera ez egiteko emandako agindua.

3. Gai horiek interesdunei jakinarazi ondoren, txatar-parke jarduerarako jarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko udalak ondoren egindako jardueren berri eman digute.

IDEMA enpresak Mallabiko Udalak hala eskatuta 2011ko azaroan egindako txostena igorri digute; bertan partikulengatiko kutsadura atmosferikoa eta zarata-maila neurtu dira.





Isuritako hauts-mailari dagokionez, txostenak ondorioztatu du YYY SL enpresaren jarduerak kasu horretan aplikatu beharreko araudia betetzen duela. Lortutako zarata-mailak, ordea, ez datoz YYY SL enpresak garatzen duen jarduerarako ezarritako neurri zuzentzaileekin bat. Horrenbestez, txostenak ondorioztatu du zarataren aurkako araudiak baimentzen dituen gehieneko mailak lortzeko neurri egokiak jasotzen dituen berariazko azterlan akustikoa egin behar dela.

Ondoren, 2012ko otsailean, eragozpen horiek jasaten dituzten pertsonak jakinarazi ziguten euren dakitela YYY SL enpresa sustatzaileak ez duela lehenengo erabilerarako lizentzia emakidarik, baina hala ere txatar-parkeko jarduerarekin jarraitzen duela. Jarduera ezarritako neurri zuzentzaileetara moldatzeko udalak egin dituen ekintzen berri ere ez omen dute izan.

Horrenbestez, materiala deskargatzearen eta pilatzearen ondoriozko zaratak eta keak etengabe eragiten dizkieten eragozpenengatiko salaketa mantenduko dute kaltetuek. Halaber, mantentzen dute zenbait txatar-zati mozten eta zatitzen dituela enpresak (txostenean adierazten denez, trenbideak zizailaz mozten dituzte).

Gogoetak

1. Guk kasu honetan esku hartzearen xedea Goitondo industrialdeko 4.1 partzelan txatar-parke jarduera industrialak garatzearen ondoriozko ke eta zaratek eragiten dituzten eragozpenen inguruan Mallabiko Udalak egindako jarduera aztertzea da.

Industrialdearen inguruan bizi diren pertsonak aipatzen dituzten eragozpenek eragina dute euren eguneroko bizitzan, izan ere, egunez eta batzuetan gauetz sortzen den zarata euren osasunean eragina izaten ari da. Halaber, txatarra pilatzearen ondorioz atmosfera kutsatzen dela ere salatzen dute, materialak metatzeak eta mugitzeak auzokoen ingurunera osasunerako eta ingurumenerako kaltegarria izan daitekeen burdin-hautsa igortzea baitakar.

2. Argi dago mota horretako jarduera industrialei araudi tekniko-juridiko egokirik aplikatu ezean, jarduera industrialaren titularrek negozioa egiteko duten interes partikularren eta ingurumena zaintzeko zein industrialdearen inguruan bizi diren herritarrei isurketa kutsagarriek eragin diezazkieten legez kontrako eragozpenak ekiditeko interes orokorraren arteko gatazka sor daitekeela.

Sailkatutako jarduerak ingurumen arloko legedira egokitzeko eta horren kontrola eskatzeko botere publikoek egin behar dituzten jarduerak ez dira hautazkoak. Interes orokorra defendatzeko eta legedi horrek eskatzen dituen betebeharrak betearazten direla bermatzeko antolamendu juridikoak ematen dizkien eskumen publiko horiek ordena publikoko kontua dira.





Ingurumenaren kontrola egiteko ingurumenerako egokia dela justifikatzen duen derrigorrezko prestakuntza-titulu administratiboa atera behar da jarduera abian jarri aurretik. Halaber, ingurumenaren kontrola ez da baimen horretara mugatzen, izan ere, behar bezala garatzeko segimendua egin behar zaio eta emaitza jakinak eskatu behar zaizkio aurrez xedatutako ingurumen-kalitaterako helburuei dagokienez.

Kasu honetan, Ingurumena babesteko EAEko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 55.1 artikulua xedatzen duenez, arau horretan jarduera bat abian jarri ahal izateko ezinbesteko baldintzatzat jotzen den jarduera klasifikaturako lizentzien araubideari lotuta daude hondakinak biltegitzeko jarduera industrialak eta instalazioak. Ingurumen-kontrol hori jarduera abian jarri aurretik egin behar da, ingurumenari zein pertsonen osasunari eragin ahal dizkien kalteak ebaluatzeko eta, horrela, beharrezko prebentzio-neurriak ezartzeko.

Aipatutako arau horrek xedatzen du baimen bikoitza behar dela: bat ingurumen-kalitate egokia bermatuko duten neurri zuzentzaileak ezartzen dituen eta bestea neurri horiek benetan betetzen direla bermatzen duena. 3/1998 Legearen 61.3 artikulua xedatzen duen legez, aldeko egiaztapen-akta eman ondoren eta klasifikatutako jarduera hasi aurretik emango du Udalak irekiera-lizentzia.

Halaber, jarduera- eta irekiera-lizentziek baimendutako jarduera garatzerakoan sor litezkeen gorabeheren aurrean interes publikoa babestera bideratutako lotura iraunkorra sortzen dute. Argi utzi behar da jarduerak beti bete beharko duela baldintza inplizitu bat, une oro interes publikoaren arabera izatea alegia. Eskakizun horiei esker, Administrazioak beti izango du baimendutako jardueran esku hartzeko aukera, beti ere proportzionaltasunez jokatuta; eskumen horri esker, jarduerak behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko beharrezkoak diren zuzentzeko eta egokitzeko neurriak jarri ahal izango dizkie jardueraren sustatzaileei, baita ofizioz ere, eta azkeneko baliabide gisa, baimena baliogabetu ahal izango du ezinezkoa bada interes publikorako eskakizunetara egokitzea, izan ere, hala egin ezean zaintza, segurtasuna, elkarbizitza eta ordena publikoa bermatzeko betebeharrak nagusien kontrako utzikeria izango litzateke.

3. Aztertutako espedientean Mallabiko Udalak frogatu du txatar-parkeko jarduera beharrezko administrazio-lizentziarik gabe ari dela funtzionatzen.

Administrazio-espedientean emandako dokumentazioan agertzen da txatar-parkea 2010eko maiatzetik dagoela martxan.

Jarduera klandestino hori dagoela egiaztatzerakoan, Mallabiko Udalak hura legeztatzeko eskatu zuen hainbat ebazpenetan (aipatu ditugun 2010eko ekaineko eta 2010eko azaroko dekretuak).





Ondoren, 2010eko azaroan, jardueraren sustatzaile den YYY SL enpresak dagokion jarduera-lizentzia eskatu zuen. Udalak 2011ko ekainean eman zion jarduera-lizentzia, beti ere Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak ezarritako neurri zuzentzaileek baldintzatuta.

Hala ere, udalak ez zion irekiera-lizentziarik eman enpresak ez zuelako frogatu jarduerak sortzen dituen zaratari eta hautsari buruzko neurri zuzentzaileak betetzen dituela. Alderantziz, Udalak eskatuta 2011ko azaroan egindako balorazio-txostenak ondorioztatu zuen jarduerak ez dituela eskatzen diren zarata-mailak betetzen.

Irekiera-lizentziarik gabe funtzionatzeari dagokionez, Udalak zigorra ezarri die enpresa arduradunei, baina ez dirudi txatar-parkea kentzera edo ixtera bideratutako neurririk hartu duenik.

4. Gogorarazi behar dugu beharrezko administrazio-baimenik ez duten jardueren kasuan Arartekoa bat datorrela Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian mantentzen den irizpidearekin, hots, klandestinoztat jotzea lizentziarik ez duten jarduerak. Erakunde honen ustez zuzenbidearen arabera da Udal agintaritzak jarduera horiek ixtea jarduera ingurumenaren babesari buruzko 3/1998 Legean xedatutako prozedurari jarraiki legeztatu bitartean.

Honako kexan gertatutakoak bezalako egoerak ekidite aldera, Ingurumena babesteko EAEko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 65. artikulua honakoa xedatzen du: kasuan kasuko zigorrak alde batera utzi gabe, alkateak jarduera batek behar duen baimenik gabe funtzionatzen duela jakiten duenean gehienez sei hileko epean legeztatzeko eskatu behar dio titularrari. Bestela, edo jarduera ezin bada legeztatu, *"itxi egingo da, lehenik interesdunari entzunaldia emanda"*.

Hizpide dugun kasuan, udalak txatar-parkea legeztatzen saiatzeko esku hartu du azken 18 hilabeteetan, baina ezin izan ditu eteteko aginduaren eta aipatutako legediaren ingurumen-eskakizunak bete. Esku artean ditugun datuetatik honakoa ondoriozta dezakegu: alde batetik, jardueraren erantzuleak ez duela lizentzia eduki arte jarduera geldiarazteko agindua bete nahi izan, eta bestetik, kaltetutako auzokideek hainbat salaketa jarri dituzten arren eta jarduerak irregulartasunak dituela frogatu arren, Mallabiko Udalak ezin izan duela ebatzen hori betearazi, eta horrenbestez, argi eta garbi hautsi dela lizentzien teknikak xedatzen duen prebentzio-printzipioa.

Ingurumenerako kaltegarriak diren egoerak daudenean tokiko erakundeek ezin dute arazotik aldendu eta ehunka pertsona edo ondasuni kalteak eragin arte esperoan geratu, eta ezin dute, ezta ere, espedientea atzeratu lokaleko erantzuleek jarduera legeztatuko duten esperantzan. Ezinbestekoa da udalak arrisku-egoera amaitzeko esku hartzea eta beharrezko neurri zuzentzaileak berak hartzea, edo bestela arduradunei eurei zuzenean agintzea hori egiteko.





Neurri zuzentzaile horiek jarduera hasi aurretik edo irekitzen den unean bertan eskatu beharko dira. Jardueraren titularraren erantzukizuna izango da neurriok betetzen direla justifikatzea. Batez ere kasu honetan, udalak berak egiaztatu baitu ez dela betetzen kalitate akustikoari buruzko araudia.

Komenigarria da gogoraraztea Giza Eskubideen Europako Epaitegiak (Martínez Martínez Espainiaren aurka kasuko 2011ko urriaren 18ko Epaia) eta Epaitegi Konstituzionalak ebatzi dutela zaratek, isurpenek eta usainek pertsonen etxebizitza errespetatzeko eskubidea eragotzi dezaketela. Horrenbestez, Administrazioaren lana ez da soilik eragozpen horiek saihestea, gizabanakoak kalte horietatik babesteko ardura ere baitu.

Herritarrei eragozpenak edo kalteak sor diezazkieten zaratak saihesteko eta, bidezkoa denean, zuzentzeko antolamendu juridikoak esleitzen dion botere edo egitekoa bete behar du ezinbestean organo publikoak.

Horrenbestez, tokiko erakundeei dagokie zarata-iturriak herritarren interes legitimoek eragiten dizkien eragozpen edo kalte horien nolakotasunarekin bateragarriak diren neurriak hartzea.

9. Orain arte azaldutakoa kontuan hartuta, Arartekoak ondorioztatzen du ezin dela jarduera honen inguruan bizi diren familiek halako egoera deserosoa jasaten jarraitzerik onartu.

Badakigu zaila dela instalazioak zaindu eta kontrolatzea, eta uste dugu oreka bilatu behar dela jarduera industrialaren eta herritarren eskubideen, hau da, jarduera industrialak garatzeko eskubidearen eta zaratak eragozpenik sortu gabe deskantsatzeko eta kalitatezko ingurumenaz gozatzeko eskubidearen artean.

Hala ere, ezinbestekoa da Mallabiko Udalak abian jar ditzala mota horretako jardueren inguruan bizi diren herritarren eskubideak (etxebizitzaren intimitaterako, segurtasunerako eta bortxaezintasunerako eskubidea) hezurramitza lortzeko behar diren baliabide eta prozedurak, herritarrak ezin baitira merkataritza-establezimenduak eragiten dizkien eragozpenen erruz lasaitasunik eza pairatzera kondenatuta egon.

Horrenbestez, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan xedatutakoari jarraiki, honako gomendioa egiten dugu:

42/2012 GOMENDIOA, martxoaren 19koa, Mallabiko Udalari egina

Honakoa gomendatzen diogu Mallabiko Udalari: jarduera zabaltzeko lizentzia lortzeko aurreikusitako epea soberan igaro denez, Ingurumenaren babesari buruzko EAeko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 64. eta 65. artikuluei jarraiki baina bidezkoak diren zigorrak alde batera utzi gabe, jardueraren sustatzaile den YYY SL enpresari jarduera benetan eteteko eskatu beharko lioke edo, bestela, modu subsidiarioan zigilatu edo kendu





beharko lituzke herritarrei eragozpenak eragiten dizkieten elementuak, horrela salatzaileen eskubideak babesteko.

Nolanahi ere, sustatzaileak zaratari buruzko sektore-araudian finkatutako kalitate akustikorako xedeak lortzeko neurri zuzentzaile egokiak kontuan hartuko dituen azterlan akustikoa aurkeztu beharko luke.

